

# Kanbo CAMBO les-Bains Info Berriak

JANVIER 2025
N° 26

**DOSSIER** | *Behakoa*

Les grands projets 2025
*2025eko proiektu handiak*

**MOBILITÉ** | *Mugikortasuna*

Txik Txak accélère
*Txik Txak zaluago*

**4. ACTUALITÉS MUNICIPALES** | *Berriak*

**6. ACTUALITÉS SOCIALES** *Gizarte berriak*

**10. TEMPS FORTS DE L'ÉTÉ** *Udako gartakari handiak*

**12. L'AGENDA** *Iskideak*

**15 DOSSIER** *Behakoa*

**Les grands projets 2025**
*2025eko proiektu handiak*

**19. MOBILITÉ : TXIK TXAK ACCÉLÈRE** *Mugikortasuna : Txik Txak zaluago*

**20. CULTURE** | *Kultura*

**24. TRIBUNES** | *Tribunak*


# CHERS CAMBOARS,
## *Kanboar adiskideak,*



A toutes et à tous
Bonne et heureuse
Année 2025 !


Bulletin édité par la Ville de Cambo-les-Bains - ISSN 3002-9260
Directeur de la publication / amene opta : *Christian Devèze*
Crédits photos / amene opta : *Ville de Cambo-les-Bains, Guetty Images* - Photo de couverture et p.18 : *@Instapades studio* - Photos p.10 et 11 : *@Marc Mittoux*
Création graphique / optako : *Flora Le Chenadec*

Même si les temps que nous traversons ne peuvent que nous inciter à la mesure, je vous adresse d'abord mes meilleurs vœux pour l'année 2025.

Rien de tel, en pareilles circonstances, que de commencer l'année, par évoquer nos projets en cours. Et c'est à ces projections vers un avenir proche que sera consacré le dossier central de ce magazine dont je veux d'abord saluer le nouveau format et sa mise en page revisitée et résolument plus dynamique et efficace.

Dans l'ordre de cette nouvelle pagination, on pourra prendre connaissance de la réhabilitation de notre mur à gauche qui pourra désormais recevoir les compétitions de haut niveau. Toujours en faveur de la pelote, un regard s'imposait sur le nouveau visage du local de la Kanboarrak.

L'équilibre « sport-culture » qui fait la marque de notre commune, est, cette fois encore, respecté avec l'hommage fait à Rosemonde Gérard en donnant son nom à notre médiathèque. Par ailleurs, Cambo-les-Bains, et c'est le résultat d'une politique déterminée de la commune sur le terrain de la pratique l'euskara, propose la possibilité de rejoindre un groupe de bascophones ouverts au partage des rudiments de la langue basque au plus grand nombre.

Un retour en images nous permettra de nous replonger dans les moments forts, festifs et culturels de l'été passé. Ne pas omettre non plus le rendez-vous prochain, salle Assantza, de la rétrospective sur les 50 ans de l'Essor Basque. Il nous est enfin apparu important de vous permettre, dès maintenant, de prendre date pour les visites aux jardins d'Arnaga et nos moments musicaux de l'été 2025 à la Halle Jougleux. De façon plus générale, les festivités et animations de ce premier semestre ont été aussi recensées.

Des focus sont aussi portés sur des acteurs précieux de notre vie associative comme l'association Maillâges dont l'engagement intergénérationnel est très fidèlement soutenu par notre CCAS. Le travail de fond du Secours Catholique, dernier rempart contre la solitude, méritait aussi un coup de projecteur. Je veux aussi saluer l'implication de l'association AGIRabcd sur le front de l'alphabétisation et du soutien scolaire.

Le service de portage de repas joue aussi un rôle essentiel dans le maintien d'un lien social plus que jamais précieux et ce magazine est aussi là pour en faciliter le contact. Je profite de cette évocation du travail de fourmi du CCAS pour adresser toutes mes félicitations à Sylvain Rouyer, aide à domicile, sacré champion de France de samba en 2024. A signaler aussi l'engagement de l'association ACTIOM qui accompagne nos concitoyens dans la clarification de formalités administratives d'un abord toujours trop complexe.

Un point sur la mobilité avec le réseau Txik Txak a aussi sa pertinence, avec une proposition locale de « mobilité sur mesure pour tous » et à des tarifs abordables.

J'ai tenu enfin à ce que vous soyez d'ores et déjà informés des projets 2025 de réhabilitation de l'Orangerie et de l'étude sur celle des Ecuries d'Arnaga. Au-delà de la préservation que nous devons à ce patrimoine unique dont nous continuons à veiller à la conservation, il y a la volonté de créer là un espace nouveau de vie culturelle et sociale le plus vibrant et ouvert possible.

Comme vous le voyez, la diversité des projets et des actions qui nous attendent pour cette année 2025, témoigne du degré d'investissement dont notre commune est capable. Je veux y voir le seul militantisme qui vaille et qui doit nous animer chaque jour. Et il ne porte qu'un nom, celui de notre chère cité : Cambo-les-Bains !

Nahiz eta igarotzen ari giren garaiek neurriz aritzera akuilatzen gaituzteen, ene agiantza hoberenak helarazten dizkizuet 2025. urte berriarendako.

Kasu horietan, bidean ditugun proiektuak aipatzea da urtea hasteko molderik hoberena. Etorkizun hurbileko proiekzio hauei buruz arituko da aldizkari honen dosier nagusia, eta lehenik eta behin aldizkari honen formatu berria, diseinu birmoldatua, dinamikoagoa eta eraginkorragoa goretsi nahi ditut.

Orrikatze berri horren ordenan, gure ezkerparetaren zaharberritzearen berri izanen dugu, hemendik aitzina goi-mailako lehiaketak iraganen baitira hor. Beti pilotaren alde, behako bat beharrezkoa zen Kanboarrak lokalaren itxura berriari.

Gure herriaren marka egiten duen « kirola-kultura » oreka errespetatua da oraino ere, Rosemonde Gerardi gure mediatekari bere izena emanez egindako omenaldiari esker. Bestalde, Kanboko herriko etxeak euskararen erabilpenaren eremuan duen politika deliberatu baten emaitza gisa, proposatzen du euskal hiztun-talde ireki batengana joateko aurkera, euskararen oinarrizko ezagutzak ahal bezain bat jendeei partekatzeko.

Joan den udan hartutako irudiek, orduko besta- eta kultura-aldi sendoetan murgiltzeko aukera emanen digute. Ez dugu ahantzi behar ere, Essor Basque delakoaren 50 urteei buruzko atzera begirakoaren hitzordua, Azantza gelan. Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu, oraindanik jakin ditzazuen 2025eko udako Arnagako lorategiko bisitak egiteko eta Jougleux Aretoko musikaldien datak. Orokorki, lehenbiziko sei hilabete honetako bestak eta ekitaldiak zerrendatu ditugu.

Hurbileko begirakoak aurkituko dituzue ere gure elkarte-biziaren eragile baliosei buruz, hala nola Maillâge elkartea, gure GEUZak elkarte honen belaunaldien arteko engaiamendua fidelki sustengatzen duena preseski, bestalde bakardadearen kontra azken harresia den Sokorri Katolikoaren funtsezko lanak argitan ezartzea merezi zuen. AGIRabcd elkartearen parte hartzea azpimarratu eta goretsi nahi nuke, alfabetatze- eta eskolatze-sustenguaren saileetan.

Bazkariak etxez-etxe banatzeko zerbitzuak ere funtsezko laguntza bat ekartzen du ere gizartearekilako lotura baliosa atxikitzen, eta aldizkari hau hor da ere harremanen errexteko. GEUZaren xinaurri lanaren aipamenaz baliatzen naiz ere ene zorionak Sylvain Rouyer etxez-etxeko laguntzaileari helarazteko, Frantziako samba txapeldun gisa oharatua izan baitzen 2024an. Halaber, aipa dezagun ere ACTIOM elkartearen engaiamendua, gure herritarrak laguntzen dituena administrazio-urrats korapilatsuak gainditzen.

Txik Txak mugikortasun-sareari buruzko puntu baten egitea egokia da ere, bakoitzaren beharren araberako tokian-tokiko mugikortasun-eskaintza bat proposatzen baitaukute arrazoizko prezioan.

Azkenik, Arnagako Laranjategiaren arraberritzearen eta Zalditegien arraberritze-azterketaren 2025eko proiektuetaz jakinean izan zaitezten nahi izan dut. Ondare paregabe honi zor diogun zaintzaz baino haratago, kultura- eta gizarte-gune ahal bezain irekia eta bizkorra sortzeko borondatea dugu leku horretan.

Ikusten duzuen bezala, 2025. urte honetan goaitatzen gaituen proiektu eta ekintzen aniztasunak gure herriaren inbertitzeko gaitasuna agerian ematen du. Hau da nik ikusten dudan eta egunero piztu behar gaituen militantismo balios bakarra. Eta izen bakar bat du, gure herriarena: Kanbo!



**CHRISTIAN DEVÈZE**
**MAIRE DE CAMBO-LES-BAINS**
*Kanboko auzapeza*



santé / osasuna

# PARCOURS-SANTÉ *Osasun-ibilbide*

**Située aux abords de la salle Zabalki, au milieu de la plaine des sports Michel LABEGUERIE, une zone disposant de 5 agrès permet désormais à toutes et tous de pratiquer une activité physique.**

Composé de différents types d'éléments, cet endroit permet aussi bien de travailler:

• Le cardio, grâce au vélo de fitness extérieur et au vélo à bras,

• Le renforcement musculaire, avec un banc abdos, un système de poids magnétiques, ainsi qu'une station d'étirement qui invitent à plusieurs exercices de musculation et d'étirement.

Sur chaque agrès, des exemples d'exercices sont dessinés et des tutos sont également téléchargeables par QR CODE.
Les agrès sont accessibles quel que soit son niveau, amateur ou confirmé. Cette aire se veut totalement inclusive, elle donne la possibilité aux personnes à mobilité réduite une pratique sportive. L'objectif du parcours de santé est de lutter contre la sédentarité, en développant la pratique libre d'activité physique au sein de la commune. Une autre finalité est la prévention de la perte d'autonomie.

**Michel LABEGUERIE kirol eremuaren erdian den Zabalki gelaren inguruan ariketa fisikoak egiteko 5 tailer ditugu denentzako eskuragarri.**

Tailer horietan atzematen ditugu honako lanketak egiteko tresnak:

• Kardioa, kanpoko fitness-bizikleta eta beso-bizikletarekin,

• Muskuluen indartzeko tresnak: abdominalak lantzeko bankua, pisu magnetikoak, luzapenak egiteko gunea. Denen artean muskulazio eta luzapen ariketa andana egin daiteke.

Tailer bakoitzean, marrazki batzuen bidez ariketa iradokizunak ematen dira eta QR kodearen bidez tutorialak deskarga daitezke.
Tailerrak maila guzietarako pentsatuak dira, hasi-berri nahiz trebatuentzako. Ibilbideak osoki inklusiboa izateko xedea du. Mugikortasun mugatua dutenek ere kirola egin dezakete. Osasun ibilbidearen helburua sedentaritatea borrokatzea da. Horretarako herrian ariketa fisikoa libreki egiteko aukera eskaintzen du. Beste helburuetako bat autonomia galeraren prebentzioa da.



# VOIRIE *Bideak*

urbanisme / hirigintza

**L'année 2024 a vu :**

• l'achèvement de l'aménagement de la rue des Écoles

• la réalisation d'une première tranche de la rue Delbarre

• les travaux d'enfouissement partiel des lignes télécoms de la deuxième portion de la route de Macaye

• la réfection des voiries de Donapétria, Camp de César, Elorria.

En 2025, nous prévoyons notamment l'aménagement d'une deuxième tranche du quartier Delbarre ainsi que la poursuite des travaux route de Macaye. D'autres travaux de réfection de voirie seront également programmés notamment au quartier du cimetière.
Notre programme voirie, comme d'autres projets, a été fortement impacté par les hausses de prix qui ont limité nos réalisations.

**Honakoak egin dira 2024an:**

• Eskoletako karrikaren antolamenduaren bukatzea

• Delbarre karrikaren lanen lehen zatia

• Makeako errepideko bigarren zatian telekomunikazio lineen lurperatze partziala

• Donapetria, Camp de César, Elorria bideen berritzea.

2025ean, Delbarre auzoan bigarren zatia aurreikusi dugu, eta Makeako bidean lanen segitzea. Bideen eraberritzeko lanak eginen ditugu baita ere Hilerriko auzoan.
Prezioen emendatzeek bideen programan eta beste proiektu zenbaitetan eragina izan dute: lan batzuk mugatu behar izan ditugu.




médiathèque / mediateka

# HOMMAGE À ROSEMONDE GÉRARD

## *Rosemonde Gérard omentzen du*

Depuis le 11 octobre 2024, la médiathèque municipale de Cambo-les-Bains porte fièrement le nom de Rosemonde Gérard, une figure majeure de la littérature française. Poétesse, dramaturge et muse, cette femme de lettres a marqué son époque par son talent et son engagement artistique.

### Un Parcours Littéraire Remarquable

Née le 5 avril 1866, Rosemonde Gérard a brillé très tôt dans le paysage littéraire français. Son premier recueil de poésie, Les Pipeaux (1889), a reçu un prix de l'Académie française, tout comme L'Arc-en-Ciel (1926), publié des décennies plus tard. Au total, elle a laissé une œuvre riche comprenant sept recueils de poésie en vers, deux ouvrages en prose et treize pièces de théâtre. Parmi ces pièces, quatre furent écrites en collaboration avec son fils Maurice, tandis qu'une autre fut coécrite avec André de Badet, écrivain et librettiste.

### Un Engagement Reconnu

Au-delà de ses talents littéraires, Rosemonde Gérard fut une personnalité engagée. Nommée Chevalier de la Légion d'Honneur, elle siégea également au jury du prestigieux Prix Femina, soulignant son influence dans le monde des lettres.

Rosemonde Gérard s'est éteinte le 3 juillet 1953, laissant un héritage artistique et culturel profond. La décision de nommer la médiathèque en son honneur célèbre non seulement son oeuvre, mais aussi son lien indéfectible avec Cambo-les-Bains, qu'elle découvrit avec son époux Edmond Rostand en 1900. Elle contribua à magnifier la Villa Arnaga qu'elle vendit en 1923.

2024ko urriaren 11az geroztik, Kanboko mediateka Rosemonde Gérard izendatua izan da, hots frantses literaturaren figura nagusi baten izenez. Poeta, dramaturgo eta musa izan zenak bere garaian aztarna garrantzitsua utzi zuen.

### Literatura-ibilbide aipagarria

Rosemonde Gérard 1866ko apirilaren 5ean sortu zen eta gaztetik hasi zen frantses literatura-paisaian agertzen. Les Pipeaux (1889) izan zen haren lehen poema-bilduma. Frantziako akademiaren saria eskuratu zuen harentzat, baita L'Arc-en-Ciel (1926) lanarentzat ere. Orotara, lan andana utzi du, besteak beste zazpi poema-bilduma, bi prosazko lan eta hamahiru antzerki. Antzerki horietako lau Maurice semearekin idatzi zituen, eta beste bat André de Badet idazle eta libretistarekin.

### Engaiamendu aitortua

Literatura emaztea izateaz gain Rosemonde Gérard pertsona engaiatu izan zen. Frantziako Ohorezko Legioaren Zaldun izendatua izan zen, Femina Sari ospetsua eskuratu zuen, letren munduan zuen eragina azpimarratzeko.

Rosemonde Gérard 1953ko uztailaren 3an hil zen, arte eta kultur ondare sakona utzita. Mediatekari haren izena ematearekin, ez dugu soilik obra omentzen, baizik eta Kanborekin zuen lotura azkarra ere bai, 1900ean Edmond Rostand senarrarekin ezagutu zuena. 1923an saldu zuen Villa Arnaga edertzen lagundu zuen.

culture / kultura

# LANGUE BASQUE *Kanbon euskaraz*

Dès le début de l'année 2025, vous pourrez rejoindre un groupe de bascophones au moins une heure par semaine pour partager la langue basque de manière informelle.
Il suffit d'être majeur et « utilisateur indépendant » (niveau B1 du CECRL) pour comprendre et s'exprimer en euskara dans des discussions simples de la vie quotidienne.

**Information : iparraldea.mintza@aek.eus et au 05 59 26 46 02 ou auprès de Gau eskola d'Itxassou au 05 59 93 40 83**
**Inscription : emanizena.**
praktikatu.eus **(gratuit)**

2025eko hasieratik, euskaldunen taldera hurbiltzen ahalko zara, astean oren batez euskaraz mintzatzeko modu informalean.

Horretarako aski da heldua izatea eta « hizlari independentea » (B1 maila) izatea, eguneroko elkarrizketetan euskaraz aritzeko.

**Xehetasunak: iparraldea.mintza@aek.eus eta 05 59 26 46 02 zenbakira, edo Itsasuko Gau eskola 05 59 93 40 83**
**Izen ematea: emanizena.**
praktikatu.eus (urririk)



lien social / lotura soziala

# ASSOCIATION MAILLÂGES

## *Maillâges elkartea*



À Cambo-les-Bains, l'association Maillâges œuvre pour réduire l'isolement des aînés et faciliter le logement des jeunes en difficulté.

Grâce à des cohabitations intergénérationnelles, elle offre un loyer modéré aux hébergés tout en apportant une présence rassurante aux seniors.

Un partenariat local : Le CCAS soutient activement cette initiative pour répondre aux problématiques de logement et d'isolement.

**Pour plus d'informations, contactez :**
**Violaine Larralde (CCAS) : 05.59.93.50.76**
**actionsociale@mairie-cambolesbains.fr**
**Site internet : www.maillages.org**

Kanbon, Maillâges elkartea adinekoen isolamendua murrizteko eta zailtasunetan diren gazteen aterpetzea errazteko lanean ari da.

Belaunaldi-arteko elkarbizitzari esker, adinekoek aterpea eskaintzen diete gazteei, alokairu merkean, eta ordainez gazteek presentzia bat segurtatzen diete adinekoei.

Tokiko lankidetza: herriko GEUZak ekimena sostengatzen du, etxebizitza eta isolamendu arazoei aterabideak atzemateko.

**Xehetasun gehiago nahi baduzu, dei ezazu:**
**Violaine Larralde (GEUZ/CCAS) : 05.59.93.50.76**
**actionsociale@mairie-cambolesbains.fr**
**Webgunea: www.maillages.org**

# SECOURS CATHOLIQUE: UNE ÉQUIPE POUR ROMPRE LA SOLITUDE

## *Sokorri Katolikoa: Bakardadea hausteko taldea*

lien social / lotura soziala

Depuis 2024, le CCAS s'associe au Secours Catholique pour organiser des visites de courtoisie pour les seniors isolés. Une équipe de bénévoles, dont Françoise et Martine, propose gratuitement des moments de convivialité (jeux, promenades, lecture).

**Contactez-nous pour en bénéficier ou pour devenir bénévole : Téléphone: 05.59.93.50.76**
**Email : actionsociale@mairie-cambolesbains.fr**

2024tik, GEUZ eta Sokorri Katolikoak begirunezko bisitak antolatzen dituzte isolatuak diren adinekoentzat. Françoise eta Martine bezalako boluntarioek momentu goxoak pasatzea proposatzen dute, urririk (jokoak, ibilaldiak, irakurketa).

**Dei gaitzazu zerbitzua ukateko edo boluntario izateko:**
**Telefonoz: 05.59.93.50.76**
**E-mailez : actionsociale@mairie-cambolesbains.fr**

lien social / lotura soziala



# AGIRABCD: DES BÉNÉVOLES AU SERVICE DE LA COMMUNAUTÉ

## *AGIRabcd: Boluntarioak komunitatearen zerbitzuko*

Cette association lutte contre l'exclusion en accompagnant les personnes en difficulté :

- Éducation : Alphabétisation, soutien scolaire, apprentissage numérique.
- Mobilité : Prévention des risques routiers, aide au passage du permis.
- Vie pratique : Gestion financière, choix d'une complémentaire santé, etc.

AGIRabcd cherche activement des bénévoles, notamment des professeurs de mathématiques.

**Contact : agir.abcdaquisud2@orange.fr / 05.59.58.27.99**

Elkarte honek zailtasunetan diren pertsonak laguntzen ditu, bazterketa borrokatzeko:

- Hezkuntza: alfabetatzea, eskolako lanen egiteko laguntza, ikaskuntza digitala.
- Mugikortasuna: zirkulazio arriskuen prebentzioa, gidabaimena pasatzeko laguntzak.
- Eguneroko bizia: diru-kudeaketa, osasun segurantza gehigarriaren hautatzea, eta abar.

AGIRabcd elkarteak boluntarioak xerkatzen ditu, bereziki matematika irakasleak.

**Harremana: agir.abcdaquisud2@orange.fr / 05.59.58.27.99**



service / zerbitzu

# PORTAGE DE REPAS

## *Apairuak etxera*




Depuis novembre, Maritxu gère ce service essentiel pour les aînés et personnes handicapées. Les repas (8,65€) incluent entrée, plat, dessert et peuvent être adaptés (mixés, coupés, etc.).

**Commandez vos repas : 06.23.34.17.53 (en Basque ou en Français).**

Azarotik Maritxuk du kudeatzen adineko eta elbarrituentzako funtsezkoa den zerbitzu hau. Apairuan (8,65€) sartzen dira, sartzea, plater nagusia eta deserta, eta egokitu daitezke (pure-egin, zatitan moztu, eta abar).

**Apairuen eskatzeko: 06.23.34.17.53 (euskaraz edo frantsesez).**




sport / kirola

# UN CHAMPION PARMI NOUS!

## *Txapeldun bat gure artean!*

Sylvain Rouyer, aide à domicile au CCAS, a marqué 2024 avec ses exploits sportifs :
Champion de France de Sambo.
Vice-champion d'Europe de Ju-jitsu.
Vice-champion du monde en Crète.
Bravo Sylvain pour ces médailles qui inspirent notre communauté!

Sylvain Rouyer, GEUZeko etxe-laguntzaileak hainbat balentria egin ditu 2024an:
Frantziako Sambo txapelduna.
Europako Ju-jitsu txapeldun-orde.
Munduko txapeldun-orde Kretan.
Zorionak Sylvain! Domina guzi horiekin komunitatearentzako eredu zara!



atelier / tailerra

# FIBRE64

## *Fibre64*

CCAS : Ateliers numériques avec la Fibre64 . Vous êtes débutants et aimeriez en savoir davantage sur le numérique, le CCAS vous propose de participer gratuitement à des ateliers animés par la Fibre64. Cela aura lieu les mercredis 12, 19, 26 mars et 2 avril.

Un cycle débutant (sur les quatre séances) vous sera proposé, ainsi que 4 ateliers thématiques.

Plus d'informations à venir courant janvier. Nombre de places limité.

Renseignements et inscriptions au CCAS : 05.59.93.50.76

GEUZ: Tailer digitalak Fibre64-rekin
Hasi berria bazara eta digitalean trebatu nahi baduzu, GEUZak Fibre64-ek urririk proposaturiko tailerretan parte hartzea proposatzen dizu. Asteazkenetan izanen da, martxoaren 12, 19, 26 eta apirilaren 2an.

Hasi berrientzako 4 saioko ziklo bat eskainiko da, eta gaikako beste 4 tailer. Xehetasun gehiago urtarrilean. Leku kopuru mugatua.

Xehetasunak eta izen ematea GEUZn: 05.59.93.50.76



service / zerbitzu

**Avec l'association ACTIOM :**
https://associationactiom.org

**ACTIOM elkartearekin:**
https://associationactiom.org

## MUTUELLE ET ÉCONOMIES:

# PROFITEZ DES CONSEILS GRATUITS D'ACTIOM À CAMBO-LES-BAINS

## *Osasun segurantza gehigarria eta aurrezpenak:*

# *ACTIOM-en aholkuak urririk Kanbon*

**La commune de Cambo-les-Bains propose, dans une démarche d'action sociale et pour tous ses habitants, de profiter des services de l'association ACTIOM.**

Chacun d'entre vous peut bénéficier gratuitement des conseils et de l'accompagnement individuel de cette association pour :

• Examiner ses contrats de mutuelle (les prix et les prestations)

• Étudier une offre concurrente d'une des mutuelles ayant contracté

En 2023, ce sont 39 personnes qui ont été reçues Centre Multi Service de Cambo-les-Bains et 12 contrats ont été réalisés. Pour 75 % des adhésions, les économies ont varié entre 20€ et 50€ par mois.

En 2024, ce sont 43 personnes qui ont été reçues lors des 11 permanences et 12 contrats ont été réalisés, comme en 2023. Les économies sont toujours les mêmes : pour 75% des contrats, elles ont varié entre 20 et 50€ par mois en moyenne.

Les permanences ont lieu tous les 2ièmes mardis après-midi de chaque mois sauf au mois d'août.
Il est possible de prendre rendez-vous pour les permanences de Cambo-les-Bains, soit par téléphone ou en présentiel au Secrétariat du CCAS de Cambo-les-Bains (05.59.93.50.76) ou bien par téléphone directement auprès d'ACTIOM (05.64.10.00.48).

**Kanbo herriak ACTIOM elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak baliatzeko aukera eman nahi dizkie bere herritarrei, gizarte ekintzako xede batekin.**

Edonork ukan ditzake aholkuak eta laguntza berezitua urririk,

• osasun segurantza gehigarrien kontratuen aztertzeko (prezioak eta zerbitzuak)

• ACTION-ekin hitzarmena duen beste osasun segurantza gehigarri baten eskaintza aztertzea

2023an, Kanboko Zerbitzu Guneak 39 pertsonei egin die harrera, eta 12 kontratu izenpetu dira. Kontratua izenpetu dutenek, hilabetean bataz beste 20 € eta 50 €ko aurrezpena egin dute.

2024an, Kanboko Zerbitzu Guneak 11 permanentziatan 43 pertsonei egin die harrera, eta 12 kontratu izenpetu dira, 2023an bezala. Aurrezpenei dagokienez, izenpetu diren kontratuen %75ek hilabetean 20€ eta 50€ artean aurreztu dute.

Permanentziak hilabeteko bigarren astearte arratsaldean eskaintzen dira, agorrilean izan ezik.
Kanboko permanentzietarako hitzordua har dezakezu, telefonoz edo bertara jinez. Horretarako, dei ezazu Kanboko GEUZera (05.59.93.50.76) edo zuzenean ACTIOM elkartera (05.64.10.00.48).

# TEMPS FORTS DE L'ÉTÉ



1



2



3

**1**

ÉVÈNEMENT / *Gertakaria*

**Feu d'artifice 13 Juillet**
**Suziriak**

**2**

CULTURE / *Kultura*

**Estivales**
**Udakoak**

**3**

PATRIMOINE / *Ondarea*

**Fêtes de Cambo-les-Bains**
**Kanboko bestak**

# *Udako gartakari handiak*

1 2

CULTURE / *Kultura*

## Salon du livre
## Liburu azoka







3 4

GASTRONOMIE / *Gastronomia*

## Fête du gâteau basque
## Euskal Bixkotxaren besta






# L'AGENDA

sport / kirola

## 1 ESSOR BASQUE

Venez célébrer le cinquantenaire de l'Essor Basque du 24 janvier au 8 février 2025 à l'Espace Culturel Assantza !
Au programme : une exposition sur le cyclisme, une rétrospective qui retrace 50 ans de cyclisme en images et reportages.
Participez à ce moment historique avec passion !
L'Essor Basque fera étape à Cambo-les-Bains le 2 février 2025.
Plus de détails sur : http://www.essorbasque.com

Essor Basque bizikleta lasterketaren berrogeita hamargarren urtemuga ospatuko dugu 2025eko urtarrilaren 24tik otsailaren 8ra, Assantza kultur gunean!
Egitaraua: txirrindularitzari buruzko erakusketa, irudi eta erreportaje bidez txirrindularitzaren 50 urte ezagutzeko. Zatoz historia horren ezagutzera! Essor Basque lasterketa Kanbon izanen da 2025eko otsailaren 2an.
Xehetasunak: http://www.essorbasque.com



**ESPACE ASSANTZA - du 24 janvier au 8 février 2025**

nature / izadia



## 2 LES RENDEZ-VOUS AU JARDIN

Venez explorer les jardins d'Arnaga à travers des activités sur le thème des « jardins de pierre, Pierres de jardin ». Entre visites guidées, ateliers interactifs et le traditionnel marché aux plantes, profitez d'un week-end riche en découvertes botaniques et culturelles.
Rendez-vous aux jardins à la Villa Arnaga, 7 et 8 juin 2025 !

Zatoz Arnagako lorategien esploratzera « harrizko lorategi, lorategiko harri » gaiaren inguruko jardueren bidez. Bisita gidatuak, tailer interaktiboak eta ohiko landare merkatua, asteburu batez aurkikuntza botaniko eta kulturalak egiteko.
Arnagako lorategietako hitzordua, 2025eko ekainaren 7 eta 8an!

**VILLA ARNAGA - 7 et 8 juin 2025**

musique / musika

## 3 JEUDIS DE LA HALLE / *Ostegunak aterpean*

Rendez-vous musicaux à Cambo-les-Bains !
Le 21 juin 2025, célébrez la Fête de la Musique à la Halle Jougleux.
Dès mai, découvrez les « Jeudis de la Halle » : chaque jeudi, un concert unique vous attend avec un groupe différent.

Kanboko musika-hitzorduak!
2025eko ekainaren 21ean, Musikaren Besta Jougleux aterpean. Maiatzetik goiti, « Ostegunak aterpean » : ostegunero kontzertu bat, talde berri batekin. Ez huts egin!



**HALLE JOUGLEUX - Tous les jeudis - gratuit**

# *Iskideak*



**24/01/25 AU 08/02/25**

**EXPOSITION / ERAKUSKETA**

## « L'ESSOR BASQUE, 50 ANS »
Espace culturel Assantza.
14$^{H}$-18$^{H}$ du mardi au samedi

**02/02/25**

**SPORT / KIROLA**

## L'ESSOR BASQUE
Arrivée prévue à 16$^{H}$45
allées Ed. Rostand.
Parking Sorhainde. 16$^{H}$45

**08/02/25**

**SPECTACLE / IKUSGARRIA**

## « DENAK PLAZARA »
de Pontx
AIEC. Gratuit. 10$^{H}$30

**12/02/25**

**LECTURE / IRAKURKETA**

## LIBREPLUME
Lecture d'albums et
de comptines en français
Médiathèque. 10$^{H}$30

**15/02/25**

**FESTIVITÉ / BESTAK**

## CARNAVAL
- Jeux pour enfants et atelier de maquillage

Halle Jougleux à partir de 14$^{H}$

- Défilé du carnaval dans les rues de Cambo-les-Bains

À partir de 17$^{H}$

**04/03/25 AU 15/03/25**

**EXPOSITION / ERAKUSKETA**

## BELLOSELSKY
Exposition de peintures.
Espace culturel Assantza.
14$^{H}$-18$^{H}$ du mardi au samedi

**15/03/25**

**CÉRÉMONIE / ZEREMONIA**

## ACCUEIL DES NOUVEAUX HABITANTS
Mairie - Salle du conseil. 10$^{H}$30

**26/03/25**

**LECTURE / IRAKURKETA**

## LIBREPLUME
Lecture d'albums et
de comptines en basque
Médiathèque. 10$^{H}$30

**28/03/25**

**THÉÂTRE / ANTZERKIA**

## « EUSKALDUNEN JATORRIA, HISTORIA ETA IRRIA » de Txiki
AIEC. 19$^{H}$

**02/04/25**

**PATRIMOINE / ONDAREA**

## OUVERTURE D'ARNAGA

**19/04/25**

**JEUNESSE / GAZTERIA**

## CHASSE AUX ŒUFS
Matin : < 5 ans
Après-midi : 5-10 ans
Réservé aux enfants de Cambo-les-Bains
Jardins d'Arnaga.
10$^{H}$30-12$^{H}$ et 15$^{H}$-17$^{H}$

**01/04/25 AU 19/04/25**

**EXPOSITION / ERAKUSKETA**

## PEINTRES DE CAMBO-LES-BAINS
Exposition de peintres
amateur de Cambo-les-Bains
Espace culturel Assantza.
14$^{H}$-18$^{H}$ du mardi au samedi

**16/04/25**

**LECTURE / IRAKURKETA**

## LIBREPLUME
Lecture d'albums et de
comptines en français
Médiathèque. 10$^{H}$30

**22/04/25 AU 26/04/25**

**EXPOSITION / ERAKUSKETA**

## ALEXANDRE MEYER
Exposition hommage
Espace culturel Assantza.
14$^{H}$-18$^{H}$ du mardi au samedi

SPECTACLE IKUSGARRIA · THÉÂTRE ANTZERKIA · LECTURE IRAKURKETA · EXPOSTION ERAKUSKETA · PATRIMOINE ONDAREA · SPORT KIROLA · FESTIVITÉ BESTAK · CÉRÉMONIE ZEREMONIA · JEUNESSE GAZTERIA · CULTURE KULTURA · CONCOURS LEHIAKETA · MUSIQUE MUSIKA · JARDIN LORATEGIA

SPECTACLE IKUSGARRIA · THÉÂTRE ANTZERKIA · LECTURE IRAKURKETA · EXPOSTION ERAKUSKETA · PATRIMOINE ONDAREA · SPORT KIROLA · FESTIVITÉ BESTAK · CÉRÉMONIE ZEREMONIA · JEUNESSE GAZTERIA · CULTURE KULTURA · CONCOURS LEHIAKETA · MUSIQUE MUSIKA · JARDIN LORATEGIA

**08/05/25 AU 11/05/25**

CULTURE / KULTURA

### 7ÈME FESTIVAL MUSICAL ET LITTERAIRE D'ARNAGA
Arnaga. Journée

**15/05/25 AU 25/05/25**

CULTURE / KULTURA

### EUSKARALDIA
Programme à venir

**17/05/25**

CULTURE / KULTURA

### NUIT DES MUSEES
Arnaga. 20H30 - 23H30

**21/05/25**

LECTURE / IRAKURKETA

### LIBREPLUME
Lecture d'albums et
de comptines en basque
Médiathèque. 10H30

**26/05/25 AU 13/06/25**

CONCOURS / LEHIAKETA

### CONCOURS MINI JARDINS
Parc St Joseph. Journée

**À PARTIR DE FIN MAI**

MUSIQUE / MUSIKA

### LES JEUDIS DE LA HALLE
Halle Bernadette Jougleux. 19H30

**04/06/25**

LECTURE / IRAKURKETA

### LIBREPLUME
Lecture d'albums et de comptines en français
Médiathèque. 10H30

**07/06/25 AU 08/06/25**

JARDIN / LORATEGIA

### JARDINS DE PIERRES - PIERRES DE JARDINS
Rendez-vous aux jardins
Jardins d'Arnaga. Journée

**05/06/25 AU 27/05/25**

EXPOSITION / ERAKUSKETA

### CELHAYA
Exposition peintures
Espace culturel Assantza.
14H-18H du mardi au samedi

**14/06/25 AU 15/06/25**

CULTURE / KULTURA

### 25 ANS DU JUMELAGE CAMBO-LES-BAINS / DEBA
Programme à venir

**21/06/25**

MUSIQUE / MUSIKA

### FETE DE LA MUSIQUE
Halle Bernadette Jougleux.
18H-22H45

**01/07/25 AU 12/07/25**

EXPOSITION / ERAKUSKETA

### MICHEL FREMEAUX
Exposition vitraux
Espace culturel Assantza.
14H-18H du mardi au samedi

**02/07/25**

LECTURE / IRAKURKETA

### LIBREPLUME
Lecture d'albums et de comptines en basque
Médiathèque. 10H30

**13/07/25**

FESTIVITÉ / BESTAK

### FEU ARTIFICE
Défilé de masqués vénitiens - concert de l'harmonie de Cambo-les-bains et feu d'artifice
Esplanade Orangerie.
À partir de 20H

**23/07/25 AU 25/07/25**

CULTURE / KULTURA

### ESTIVALES ARNAGA
Arnaga

MARCHÉ MERKATUAK

**Tous les vendredis**
**Ostiralero**

### PRODUITS DE BOUCHE
Rue Chiquito. 8H-13H

BROCANTE KUKUSO MERKATU

**Tous les mercredis**
**Asteazkenero**

### BROCANTE
Parc St Joseph. 9H-18H



# LES GRANDS PROJETS 2025

## *2025eko proiektu handiak*



Orangerie Arnaga @OTCAMBO




## Les grands projets de 2025 pour Cambo-les-Bains : prioriser et investir pour l'avenir

En 2025, Cambo-les-Bains adopte une approche pragmatique et responsable face aux **contraintes budgétaires croissantes** qui touchent les collectivités territoriales. La baisse des dotations et le désengagement de certains partenaires institutionnels ont conduit la commune à redoubler de vigilance dans ses décisions d'investissement.

Cette année, seuls les projets bénéficiant d'un **financement confirmé** de la part de nos partenaires – État, Région Nouvelle-Aquitaine, Communauté d'Agglomération du Pays Basque, et Département des Pyrénées-Atlantiques – seront lancés.
Ce choix garantit à la fois la **soutenabilité financière** de notre action et la poursuite des projets les plus stratégiques pour le développement de la commune.

## 2025eko proiektu handiak Kanborako : lehentasuna eman eta etorkizunerako inbestitu

2025ean, Kanbok ikuspegi pragmatiko eta arduraduna hartzen du, lurralde elkargoei eragiten dieten **aurrekontu mugapen gero eta handiagoen** aitzinean. Diru laguntzen apaltzeak eta erakunde partaide batzuen gibel egiteak, herriak bere inbestimendu erabakietan erneago izatea eraman dute.

Aurten, gure partaideek – Estatua, Akitania Berria Ekualdea, Euskal Herri Hirigune Elkargoa eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua – finantzatuko dituzten proiektuak baizik ez dira abiatuak izanen.
Hautu horrek gure ekintzaren finantza bizikortasuna eta herriaren garapenerako proiektu estrategikoenen segitzea bermatzen du.

## Voici les grands projets qui marqueront l'année 2025
*Hauek dira 2025 urtea markatuko duten proiektu handiak*

sport / kirola

# Local pelote
*Pilotaren lokala*



**Un nouveau chapitre pour le club de pelote Kanboarrak.**

Après plusieurs années d'attente, la réhabilitation du siège de notre club de pelote, la Kanboarrak, deviendra une réalité au fronton en 2025.
Ce projet permettra enfin au club de disposer d'un espace de réception moderne et de locaux administratifs adaptés, à la hauteur de son engagement et de son rôle central dans la vie sociale et sportive de notre commune. Une avancée qui souligne notre volonté de soutenir et valoriser les acteurs dynamiques de Cambo-les-Bains.

**Kanboarrak pilota taldearentzako atal berria irekiko da.**

Urte luzez beha egon-eta, Kanboarrak pilota taldearen egoitza eraberrituko dugu 2025ean, frontoian.
Honela, pilota elkarteak harrera-gune modernoa eta administrazio-lokal egokiak izanen ditu, gure herriaren bizian duen leku zentralaren eta engaiamenduaren ordain gisa. Aitzinatze aipagarria.




# La Micro-Folie : une révolution culturelle

## *Mikro-erotasuna: iraultza kulturala*

**En 2025, Cambo-les-Bains accueillera la Micro-Folie, un dispositif culturel innovant soutenu par le Ministère de la Culture et coordonné par La Villette.**

Ce musée numérique, en partenariat avec des institutions prestigieuses telles que le Louvre, le Centre Pompidou et le Château de Versailles, proposera des milliers d'œuvres numérisées accessibles en très haute définition. La version itinérante choisie par la commune sera déployée dans des lieux stratégiques comme la médiathèque, la Villa Assantza et, à terme, les Écuries de la Villa Arnaga. Un prêt gratuit de six mois, débutant au premier trimestre, permettra de tester le dispositif avant une acquisition financée à 80 % par l'État. Avec la Micro-Folie, Cambo-les-Bains affirme sa volonté de démocratiser l'accès à la culture, tout en renforçant son rayonnement au sein de la Communauté d'Agglomération. Ce projet positionne la commune comme une pionnière aux côtés de Saint-Jean-de-Luz.

**2025ean, Kanbok Mikro-Erotasuna hartuko du, Kultura Ministerioak sustengatzen duen eta La Villettek koordinatzen duen kultur dispositibo berritzailea.**

Museo digital honek, Louvre, Pompidou Zentroa eta Versaillesko Gaztelua bezalako erakunde ospetsuekin elkarlanean, milaka obra digitalizatu proposatuko ditu, oso bereizmen handian eskura daitezkeenak. Herriak aukeratutako bertsio ibilkaria leku estrategikoetan hedatua izanen da, hala nola mediatekan, Assantza Etxean eta, bukatzeko, Arnaga Etxeko Zalditegietan. Sei hilabeteko dohainik mailegu batek, lehen hiru hilabetekoan hasiz, dispositiboa entseatzeko, Estatuak % 80an finantzatua den eskuratze baten aitzin. Mikro-Erotasunarekin, Kanbok kulturarako sarbidea demokratizatzeko nahia baieztatzen du, eta aldi berean bere ospea indartzen du Hirigune Elkargoan. Proiektu horrek herria aitzindari gisa kokatzen du Donibane Lohizuneren ondoan.

urbanisme / hirigintza

# Ronds-points *Biribilguneak*

Attendus de longue date, ces projets devraient enfin aboutir en 2025-2026. Ces ronds-points dont l'objectif premier vise à résorber les problèmes de sécurité récurrents (vitesse, visibilité…) intégreront également des arrêts bus afin de répondre aux besoins légitimes des camboards.

De façon plus détaillée :
- si le rond point de paskaleku permet la desserte d'une future zone constructible, il aura été l'occasion de ramener en un seul point les voies de paskaleku et celle du bas cambo,
- le rond point d'albenitz s'accompagnera à terme d'une mise en valeur du Square.

Dans l'immédiat, les aménagements ont pour objet d'améliorer d'une part la visibilité de la sortie rue du professeur Grancher et d'autre part la sortie du centre médical « les terrasses »,
- le rond point Netto permettra d'améliorer les conditions de desserte de cette zone d'activités pour laquelle l'enseigne Netto prévoit une extension de sa surface commerciale

Aspaldian gauzatzeke dauden proiektuak 2025-2026an egin beharko genituzke. Biribilgune horien zioa segurtasun arazo errepikatuak (abiadura, ikusgaitasuna…) murriztea bazen, autobus geldilekuak ere izanen dituzte, kanboarren beharrei erantzuteko.

Xehekiago:
- Paskalekuko biribilguneak eraikitzekoa izanen den eremu berri baterako sarbidea emango du, eta gainera Paskalekuko eta Behereko plazako bideak puntu bakarrean bilduko ditu,
- Albenitzeko biribilgunea baliatuko dugu karratua balioan ezartzeko. Hasteko, lan horien lehen xedea da Grancher profesorearen karrikaren eta «Les Terrasses» mediku-zentroko irteeretako ikusgaitasuna hobetzea,
- Netto-ren biribilgunearekin saltokietarako sarbidea hobetuko da, jakinez Nettok aurreikusia duela bere saltokiaren azalera handitzea

# Réhabilitation du « mur à gauche »
## *Ezker paretaren eraberritzea*

sport / kirola

**L'année 2024 a marqué une étape essentielle avec la finalisation du projet de réhabilitation du mur à gauche de notre complexe sportif Michel Labèguerie.**

Mais c'est en 2025 que ce projet prendra vie, concrétisant une ambition majeure : faire de cet espace bien plus qu'un lieu rénové, un véritable symbole d'un patrimoine culturel et sportif vivant à Cambo-les-Bains.

Cette réhabilitation repose sur plusieurs axes structurants :

• Mise aux normes de sécurité pour garantir un usage en toute sérénité.

• Accessibilité renforcée pour permettre à tous de profiter pleinement de cet espace.

• Réfection et embellissement des surfaces sportives et de l'ensemble du bâtiment.

• Modernisation des équipements techniques, pour répondre aux attentes des sportifs d'aujourd'hui.

Dans une démarche résolument tournée vers l'avenir, nous prévoyons également l'installation de panneaux photovoltaïques, en cohérence avec notre engagement en faveur du développement durable et de la préservation de l'environnement.

Pour rendre ce lieu encore plus polyvalent et attractif, le projet inclut :

• La réhabilitation des gradins amovibles, qui permettront une modularité optimale.

• L'intégration d'un mur arrière optionnel amovible à 30 mètres, conforme aux normes des compétitions internationales.

Ces aménagements transformeront le mur à gauche en un espace sportif de premier plan, à même d'accueillir des événements d'envergure, et en un lieu de convivialité, fidèle à l'identité de Cambo-les-Bains.

**2024an Michel Labéguerie kirol eremuko ezker paretaren eraberritzeko proiektua burutzeko etapa ezinbestekoa gainditu dugu.**

Baina proiektua 2025ean gauzatuko da: eraberritze soila baino gehiago, Kanboko kultur eta kirol ondarearen ikur bilakatuko da.

Eraberritzeak hainbat ardatz izanen ditu:

• Segurtasun neurrietara egokitzea, erabiltzaileek lasaitasun osoz erabil dezaten.

• Irisgarritasunaren hobetzea, denek eremu horren baliatzeko parada ukan dezaten.

• Kirol-zoruen eta eraikinaren berregitea eta edertzea.

• Ekipamendu teknikoen modernizatzea, gaurko kirolarien beharrei erantzuteko. Etorkizunera ere begiratu dugu.

Panel fotovoltaikoak ezartzea aurreikusten dugu, beti ere garapen jasangarriaren eta ingurumenaren gerizaren alde hartu dugun engaiamenduaren erakusle.

Gainera, lekuan gauza gehiago egin ahal izateko eta erakargarriago izan dadin, honakoak aurreikusten ditugu:

• Harmaila mugikorren eraberritzea, modulartasun handiago batentzat.

• 30 metroko gibeleko horma mugikor baten txertatzea, nazioarteko lehiaketen arauetara egokitzeko.

Aldaketa horiek eginik, Kanboko ezker pareta lehen mailako kirol ekipamendua izanen da. Ekitaldi garrantzitsuak egiten ahalko dira bertan, eta Kanboko nortasuna segituz, leku atsegina izanen da.

sport / kirola

# Aménagement d'un boulodrome couvert: un nouveau lieu de convivialité
## *Petankan aritzeko aterpe baten egokitzea: elkarbizitzarako leku berri bat*



En 2025, Cambo-les-Bains se dotera d'un boulodrome couvert, un projet attendu par les amateurs de pétanque et de jeu de boules. Ce nouvel espace, pensé pour être accessible à tous, favorisera les rencontres et animations tout au long de l'année, renforçant le dynamisme associatif de la commune.

2025ean, Kanbok petankan aritzeko aterpe bat eginen du, petanka eta bola-joko zaleek espero duten proiektua. Gune berri horrek, denendako pentsatua, urte osoan topaketak eta animazioak erreztuko ditu, herriko elkarteen dinamismoa indartuz.

# Des projets pour construire le Cambo-les-Bains de demain
## *Biharko Kanboa eraikitzeko proiektuak*

Ces initiatives, soutenues par nos partenaires institutionnels, témoignent de la capacité de Cambo-les-Bains à innover et à investir dans des projets à fort impact, combinant préservation du patrimoine, transition écologique et dynamisme culturel et sportif.

Ekimen horiek, gure erakunde partaideek lagundurik, Kanbok berrikuntzarako eta eragin handiko proiektuetan inbertitzeko dituen gaitasunak erakusten dituzte, ondarearen babesa, trantsizio ekologikoa eta kultur eta kirol dinamismoa elkartuz.



TXIKTXAK©Metallier

# TXIK TXAK ACCÈLERE

# *TXIK TXAK zaluago* !

dès le 6 janvier 2025,
+ de bus toute la journée et toute l'année!

2025Eko urtarrilaren 6tik,
Egunean eta urte osoan

transport / garraioa



**Txik Txak développe le réseau de transport et met en place une nouvelle offre pour tous dès le 6 janvier 2025.**

Le lancement de cette nouvelle solution de transport alternative à la voiture individuelle et à prix accessible du réseau Txik Txak sur Cambo-les-Bains représente une avancée significative vers une mobilité durable et accessible.
Cette nouvelle offre répond à la nécessité de proposer des solutions de mobilités pour tous, adaptées aux besoins de chacun et efficaces avec des connexions fluides, détaillées en suivant.

**Kanbo herria etorkizunera begira jarri da « denentzako eta neurrirako mugikortasun » soluzioa eskainiz Txik Txak sarearekin 2025eko urtarrilaren 6tik goiti.**

Txik Txak sarearekin Kanbon eskainiko dugu norbanako autoaren garraio-eskaintza alternatiboarekin urrats handia eginen dugu mugikortasun jasangarri eta irisgarrien alde.

Eskaintza berri honek denendako mugikortasun aterabideak proposatzeko beharrari erantzuten dio, bakoitzaren beharretara egokituak eta lotura aiserekin eraginkorrak, segidan zehaztuak.



JLH-L11-03©CAPB_ Jean-Louis_Hupé

infos pratiques / informazio praktikoak

# TXIK TXAK À CAMBO-LES-BAINS, C'EST :

## *Txik Txak Kanbon :*

**→ Itinéraires Optimisés :** Les trajets seront conçus pour desservir les principaux pôles d'activité de la commune, ainsi que les zones rurales environnantes, assurant une connectivité optimale.

**→ Lignes et Fréquences :** Le réseau Txik Txak proposera plusieurs lignes adaptées aux besoins des usagers, avec des fréquences de passage optimisées pour garantir un service régulier tout au long de la journée.

**→ Horaires Flexibles :** Le service propose des horaires adaptés aux besoins quotidiens des usagers, facilitant ainsi les déplacements pour le travail, les loisirs ou les courses...

- **5 lignes de bus pour placer Cambo-Les-Bains au cœur du réseau Txik Txak grâce à des accès simplifiés à Bayonne, Saint-Jean-de-Luz, Hasparren et Saint Palais avec les lignes 27, 28, 40, 46, 60**
- **Un meilleur accès au centre-ville de Cambo-les-Bains**

**→ Intermodalité :** Txik Txak favorisera les échanges avec d'autres modes de transport, comme les trains et les vélos, pour une mobilité intégrée.

- **Combinaison train et bus depuis la gare de Cambo-Les-Bains, vers Bayonne (ligne 54 – Saint-Jean-Pied de Port-Cambo-les-Bains-Bayonne)**

**→ Tarification abordable :** L'un des principaux atouts de Txik Txak est sa tarification accessible. Ce modèle économique vise à rendre le transport public attractif pour tous, en particulier pour les ménages à revenus modestes. Cela contribue à une mobilité équitable et à la réduction des inégalités.

- **Des abonnements adaptés en fonction de l'âge et des revenus**
- **Participation employeur sur l'abonnement possible :** tous les salariés du secteur privé comme public y ont droit à une prise en charge à hauteur de 50 à 75%

**→ Ibilbide optimizatuak:** ibilbideak pentsatu ditugu herriko jarduera gune nagusietatik pasatzeko, baita inguruetako landa-eremuetatik, lotura hoberenak eskaintzeko xedez.

**→ Lineak eta maiztasuna:** Txik Txak sareak erabiltzaileen beharrei egokitutako lineak ezarriko ditu, maiztasun handiagoarekin eta urte osoan zehar zerbitzu erregularra eskaintzeko.

**→ Ordutegi malguak:** zerbitzuak erabiltzaileen beharrei egokituriko ordutegiak eskainiko ditu, lanerako, aisialdietarako edo erosketetarako joan-etorriak errazteko.

- **5 linea Kanbo Txik Txak sarearen erdian kokatzeko: linea zuzenak Baionara, Donibane Lohizunera, Hazparnera eta Donapaleura: 27, 28, 40, 46, 60**
- **Kanbo erdigunerako sarbide hobea**

**→ Intermodalitatea:** Txik Txak sareak beste garraio mota batzuekiko (trena, bizikletak) loturak erraztuko ditu.

- **Kanboko tren geltokitik Baionarako tren eta autobus eskaintza (54. linea – Donibane Garazi - Kanbo - Baiona)**

**→ Salneurri merkeak:** Txik Txak sarearen indargune nagusietako bat bere salneurri merkeak dira. Honela, garraio publikoak denentzako erakargarri egin nahi dituzte, bereziki irabazi txikiak dituztenentzat. Horri esker, mugikortasun parekidea eta desberdintasunen murrizketa ahalbidetzen da.

- **Adinaren eta irabazien araberako abonamenduak**
- **Enplegatzaileak abonamendua ordaintzen lagun dezake:** sektore publiko eta pribatuko langile guziek badute eskubidea beren enplegatzaileak abonamendua %50 eta %75 artean ordain dezan.



TXIKTXAK-TAD©Metallier

# LE TRANSPORT À LA DEMANDE POUR TOUS !

## *Eskaera bidezko garraioa denentzat !*

**Cambo-les-Bains est desservie par le nouveau service de Transport à la Demande (TAD) TXIK TXAK !**

**TXIK TXAK eskaera bidezko garraioa berria Kanbora jiten da !**

Sur mesure : TXIK TXAK vient vous chercher à l'adresse de votre choix et vous emmène vers une sélection de points de dépose : commerces, lieux de santé, correspondances bus, etc. Réservez jusqu'à 1 heure avant votre départ ou planifiez vos trajets jusqu'à 1 mois à l'avance. Réservation par téléphone au **05 47 75 76 64**. Courant 2025 via le site internet et l'application. (Réservez votre trajet retour de la même façon que l'aller et TXIK TXAK vous ramène à votre adresse.)

Neurrira : TXIK TXAK zure hautuaren helbidera bila etortzen da eta hautaketa puntu hauetara eramaten zaitu: saltegiak, osasun lekuak, autobus loturak, etab. Abiatzea baino oren bat lehenago erreserbatu edo zure bidaia hilabete bat lehenagotik antola dezakezu. Erreserba **05 47 75 76 64** telefonora deituz. 2025 urtean zehar webgunearen edo aplikazioaren bitartez. (joateko egin duzun bezala itzultzeko bidaia erreserbatu eta TXIK TXAK-ek zure helmugara eramanen.zaitu)

Accessibilité pour tous : tous les véhicules sont accessibles aux personnes à mobilité réduite.

Horaires de fonctionnement : lundi à samedi de 7h30 à 19h00. Ne circule pas les dimanches et jours fériés.

Tarifs : le Transport à la Demande est accessible au même tarif que le bus, et il est inclus dans les abonnements.

Denentzat helgarria: Ibilgailu osoak mugikortasun urriko pertsonentzat egokituak dira.

Ordutegi zabala: Astelehenetik larunbatera 07:30etik 19:00etara (igandeak eta besta egunak kanpo)

Prezioa : eskaera bidezko garraioa autobusaren prezioan da eta abonamenduetan sartzen da.



**→ Une application TXIK TXAK sur tous les téléphones**

**→ TXIK TXAK aplikazioa mugikorretan**



TXIKTXAK-TAD©Metallier

## une question? / galdera bat?

**→ Un contact téléphonique :** 05.47.75.76.64 (puis taper 2)
- Du lundi au samedi de 07h00 à 20h00,
- Le dimanche et jours fériés sauf le 1er mai : de 09h00 à 12h30 et de 14h00 à 17h30

**→ Un site internet :** TXIKTXAK.fr ou cambolesbains.fr

Il vous appartient désormais de vous approprier ce service et d'en faire un outil au service de leur quotidien.

→ Telefonoz: 05.47.75.76.64 (eta sakatu 2)
- Astelehenetik larunbatera, 7:00-20:00,
- Igande eta besta egunetan, maiatzaren 1a izan ezik: 9:00-12:30 eta 14:00-17:30

→ Webgunea: TXIKTXAK.fr

Ez zaitez lotsa zerbitzu horren baliatzeko.







Orangerie Arnaga@OTCAMBO

patrimoine / ondarea

# RÉHABILITATION DE L'ORANGERIE ET DES ÉCURIES D'ARNAGA

## *Arnagako Laranjategiaren eta Zalditegiaren eraberritzea*

**En 2025, un nouveau chapitre s'ouvrira pour le Musée Arnaga avec la réhabilitation de l'Orangerie et des Écuries.**

Ce projet ambitieux mêle préservation du patrimoine et innovation, dans le respect de l'histoire et de la grandeur de ces lieux emblématiques.
La réhabilitation de ces deux bâtiments, témoins de l'héritage architectural exceptionnel de Cambo-les-Bains, répond à plusieurs objectifs :

- Préserver et valoriser un patrimoine unique.
- Créer un espace de vie culturelle et sociale vibrant.
- Renforcer l'attractivité touristique et culturelle de notre ville.

Concrètement, l'Orangerie sera transformée en un salon de thé et un espace réceptif offrant une vue imprenable sur les somptueux jardins d'Arnaga. Les Écuries, elles, seront réaménagées pour accueillir des activités muséales, pédagogiques et événementielles, faisant de ce lieu un carrefour de découvertes, de culture et de partage.
Grâce à ce projet, Arnaga deviendra davantage encore un joyau du patrimoine camboard, un lieu où la culture et l'histoire se rencontrent pour le plaisir et l'enrichissement de tous.

**2025ean, Arnagako museoaren atal berria irekiko dugu Laranjategiaren eta Zalditegien eraberritzearekin.**

Nahikeria handiko proiektuak ondarearen zaintzea eta berrikuntza uztartzen ditu, leku aipagarri horren historia errespetatuz.

Kanboko arkitektura ondarearen lekuko diren bi eraikinen eraberritzearekin, hainbat xede ditugu:

- Ondare aipagarria zaintzea eta balioan ezartzea.
- Kultur eta gizarte gune bizidun bat sortzea.
- Gure hiriaren turismo eta kultur erakargarritasuna indartzea.

Zehazki, Laranjategia te-saloi bilakatuko da Arnagako lorategietarako ikuspegi zoragarriarekin. Erakusketak, jarduera pedagogikoak eta gertakariak errezibitzeko egokituko da zalditegia, ezagutza, kultura eta trukaketa lekua bilaka dadin.
Proiektu horri esker, Arnaga Kanboko ondarearen bitxi miresgarriagoa izanen da; leku bat non kultura eta historia gurutzatze diren, denen gogobetetzeko.

patrimoine / ondarea

# ARNAGA EN HIVER

## *Arnaga neguan*

La saison hivernale à la Villa Arnaga est consacrée aux actions de conservation préventive des collections.
Une attention particulière est portée sur les œuvres : décrochage, emballage, rangement dans les réserves... Tout est protégé avec soin !
Au sein du parcours permanent, un diagnostic sanitaire est ensuite établi afin d'effectuer, le cas échéant, des actions de restauration de toute nature (tableaux, huisseries, parquets, meubles ...)
Puis commence le travail d'actualisation de l'inventaire, de numérotation des nouvelles acquisitions, et de numérisation.
Protégées et restaurées, les collections seront de nouveau présentées au public dès le printemps !

Arnaga etxean negua baliatu ohi da bildumen zainketa lan prebentiboak egiteko. Arreta berezia ezartzen dugu obretan: dauden lekutik kendu, paketatu, erreserbetan biltegiratu... Dena zaintzen dugu kasu handirekin!
Gero, ibilbide iraunkorrean osasun-diagnostiko bat egiten da, eta behar izanez gero orotariko lanak bideratzen dira (margolanetan, hetsiduretan, parketetan, altzarietan...)
Ondotik hasiko da inbentarioaren eguneratze lana, eskuratu berri direnak zenbakitzea eta digitalizatzea.
Babesturik eta berroneraturik, bildumak prest izanen dira publikoari erakusteko udaberritik goiti!

# TRIBUNE DE LA MAJORITÉ

## *Gehiengoaren mintzalekua*

**Début des grandes manœuvres**

Les grandes manœuvres politiciennes précédant les élections municipales de l'année prochaine ont commencé et Cambo-les-Bains ne fait pas d'exception, même si c'est par l'entremise de démarches qui sont en fait plutôt et …. pour l'instant……… anecdotiques. Mais l'important consiste à ne pas être dupe.
Comment, en effet, ne pas identifier clairement les ressorts de la démission récente de trois membres de notre équipe majoritaire qui vient après la « franche » décision de deux autres, partis tout en restant.
Il ne faut pas être grand clerc pour déceler un changement de camp de certains dont nous aurons très vite la preuve…

Ce genre d'attitude, hélas, ne sert pas l'image de l'engagement public. Le pire des péchés celui de Judas, n'est-il pas précisément la trahison….

**Au bout de l'obstination**

Les opposants au projet Marienia dont il convient de rappeler que la justice paloise a rejeté tous les recours, poursuivent la stratégie de médiatisation optimale de leur combat jusqu'à se pourvoir en cassation (Conseil d'Etat à Paris) pour le PLU et à interjeter appel (Cour Administrative d'Appel à Bordeaux) pour le permis de construire.

Obstination étonnante de la part de militants désormais tournés vers des instances nationales, alors qu'ils se prévalent d'une totale proximité de terrain. La justice de notre département leur ayant donné tort, ils vont solliciter plus loin, plus haut encore à Bordeaux ou à Paris une décision qui leur a été clairement signifiée à Pau.

D'aucuns y voient plutôt le recours à des procédés dilatoires en attendant les prochaines élections municipales de 2026…

**Des mots sur des faits**

Les incidents survenus lors du Conseil Municipal du 10 avril 2024, accompagnés de la violence que l'on sait à l'encontre du

Maire seront jugés le 11 février prochain au Tribunal judiciaire de Bayonne. Deux chefs d'accusation présideront à cette audience. Le premier concerne la violation faite sur un élu local par intimidations poussées jusqu'à l'atteinte physique du premier magistrat de la ville. Le second visera plus particulièrement l'entrave caractérisée au bon déroulement des débats de l'Assemblée Municipale. Là encore, les faits parlent d'eux-mêmes et méritent d'être tout simplement juridiquement qualifiés.

Il en va de l'idée qu'on se fait dans notre pays du respect dû à une pratique sereine de notre démocratie.

### Maniobra handien hastapena

Datorren urteko herriko hauteskunde-aitzineko ekintza politiko handiak hasi dira eta Kanbon ere ber gauza gertatzen da, nahiz eta ez diren …. momentukotz… urrats anekdotiko batzuren bitartez baizik agertzen. Baina garrantzisuena ez dea ez dugula sobera petzero izan behar? Alabaina, nola ez pentsa, gure gehiengoko taldetik arras "frankoki" joan zitzaizkigun bi kideen ondotik, haatik beti hor daudenak, talde bereko beste hiru kideen dimisioak ez duela zerbait azpijoko gordetzen?
Ez da abilena izatearen beharrik, zenbaitzuren alderdiz aldatzeko keinua baizik ez dela hau; geroak argiki frogatuko derauku.
Jokamolde hau ez da zoritxarrez, engaiamendu publikoak erakutsi behar lukeen itxura hoberenaren alde ari. Judasen bekatu piesena ez ote zena hain zuzen traizioa?

### Puntako tematzea

Marienia proiektuaren kontrakoek (zeinarentzat Paueko justiziak helegite guziak baztertu dituen) beren borrokaren neurriz kanpoko mediatizatze-estrategian segitzen dute, Kasazio-epaitegira (Parisko Estatu Kontseilua) helegitea erabaki dute Tokiko Hirigintza Planarentzat (THP) eta Helegite-errekurtsoa aurkeztea (Bordeleko Administrazio-dei auzitegia) Eraikitze baimenarentzat.
Tematze harrigarria, gaurdanik instantzia nazionalengana joaten diren ekintzaile batzuren partetik, beren burua arrunt tokikotzat agertzen dutelarik.
Gure departamenduko justiziak ez baitiete ontzat eman, beraz urrunago, gorago doatzi eske, Bordele edo Pariseraino, erabakia garbiki adierazia izana zaielarik Pauen.
Batzuek diote, ez direla horiek jokamolde luzagarriak baizik, 2026ko ondoko herriko hauteskundeak arte…

### Zenbait hitz gertakariei buruz

2024ko apirilaren 10eko Herriko Kontseiluan iragan ziren gertakariak eta Auzapez-pertsonaren kontra izan ziren bortizkeriak, datorren otsailaren 11n epaituak izanen dira Baionako Justizia-epaitegian.
Bi akusazio-oinarri aipatuko dira nagusiki saio horretan. Lehenbizikoa da, tokiko lehen hautetsiak jasan zuen kontrakoen larderia, hiriko lehen magistratuari egina izan zitzaizkion gorputz-kalteak. Bigarrena, Herriko Kontseilu bilkuraren trabatzea izanen da. Hor ere, ekintzak berak mintzo dira eta legez kualifikatuak izatea merezi dute.
Gure herrialdeko demokraziaren praktika lasaiari zor zaion errespetuaz egiten den ideiarekin bat egiten du.

**Pour le groupe majoritaire**
***Herriko gehiengoarentzat***
***Christian DEVÈZE***



Il incombe aux élu(e)s de répondre aux préoccupations de leurs administré(e)s, d'écouter leurs attentes et de maintenir un lien constant avec la population. Or force est de constater qu'en ce qui concerne notre commune, ce n'est malheureusement pas le cas. Monsieur le Maire fait preuve d'une absence de réactivité notoire : les demandes de rendez-vous, les sollicitations diverses restent sans réponse. Les emails, les appels téléphoniques et les courriers restent ignorés et sans retour.
Les associations qui jouent un rôle essentiel dans la vie sociale et culturelle sont particulièrement affectées par cette situation. Le versement de la subvention très en retard sans aucune explication en est un exemple, leurs propositions sont souvent ignorées.
Cette indifférence entrave le bon déroulement de leurs projets et nuit à leur épanouissement. L'opposition n'est pas épargnée, alors que de nombreux projets sont en préparation (rénovation mur à gauche et écuries d'Arnaga, terrain synthétique, plan vélo, aménagements divers), nous aurions de nombreuses idées à soumettre, pour améliorer les projets tout en les rendant moins coûteux. Pourtant nous sommes complétement écartés.
Cependant, certaines de nos propositions ont été entendues, notamment en matière d'égalité hommes-femmes, de lutte contre les violences faites aux femmes, ainsi que de promotion de la langue basque. Ces thématiques ont été mises en lumière à travers différentes actions : conférences, projections cinématographiques, spectacles. Il est essentiel que ces initiatives soient soutenues et renforcées tout au long de l'année et non seulement de manière ponctuelle.
Nous sommes ravis de constater que l'une de nos revendications auprès du syndicat des mobilités concernant la mise en place du transport à la demande se concrétise enfin, ainsi que l'extension de l'offre de bus sur notre commune, offrant une solution de mobilité plus flexible et adaptée à toutes et tous.
Un mot sur le dossier MARIENIA : LE COMBAT CONTINUE. Bien que la cour administrative de Bordeaux ait validé le PLU, et que les décisions judiciaires successives confortent la commune et l'Agglo, la décision du tribunal concernant le permis de construire Bouygues est toujours en attente. Il ne faut pas oublier que la gestion du territoire ne se joue pas uniquement devant les tribunaux. Ce dossier se réglera sur le terrain politique. Alors que les opposants passent devant les tribunaux, le Maire de Cambo-les-Bains n'a pas encore eu à s'expliquer sur l'absence d'initiative pour résoudre le problème par le dialogue.
Nous vous remercions pour votre soutien et vous souhaitons une très bonne année 2025.

Hautetsiei dagokie beren administratuen kezkei erantzutea, haien igurikimenak entzutea eta jendearekin etengabeko lotura atxikitzea. Baina egiaztatu behar da, gure herriari dagokionez, maleruski ez dela horrela. Auzapez jaunak erantzun falta nabarmena erakusten du : hitzordu eskaerak, eskaera ezberdinak erantzunik gabe gelditzen dira. Mezu elektronikoak, telefono deiak eta gutunak ez dira kontuan hartuak eta ondoriorik ez dute.
Gizarte eta kultur bizitzan funtsezko papera duten elkarteei bereziki eragiten die egoera horrek. Horren adibide da dirulaguntza biziki berant ordaintzea, batere azalpenik eman gabe, eta haien proposamenak ainitzetan ez dira ezagutzen. Axolagabekeria horrek oztopatu egiten du haien proiektuen garapen ona, eta kalte egiten dio haien loraldiari. Oposizioa ez da libratzen, proiektu anitz prestatzen ari diren bitartean (ezker pareta berritzea eta Arnagako zalditegiak, lur sintetikoa, bizikleta plana, antolaketa ezberdinak), ideia anitz genituzke aurkezteko, proiektuak hobetzeko eta aldi berean merkeago bilikarazteko. Alta, arrunt baztertuak gira.
Hala ere, gure proposamen batzuk entzunak izan dira, bereziki gizonen eta emazteen arteko berdintasunari buruz, emazteen kontrako indarkeriari buruz eta euskararen sustapenari buruz. Gai horiek ekintza ezberdinen bidez argituak izan dira: hitzaldiak, zinema proiekzioak, ikuskizunak. Funtsezkoa da ekimen horiek urte osoan zehar lagunduak eta sendotuak izatea, eta ez bakarrik unean unekoak.
Loriatzen gira ikusteak, azkenik, mobilizazioen sindikatuarendako gure aldarrikapenetako bat, garraio eskariaren plantan ezartzeari buruz, eta gure herrian autobus eskaintzaren hedatzeari buruz, mugikortasun soluzio malguago eta guztiendako egokiago bat eskainiz.
MARIENIAko afera buruzko hitz bat: BORROKAK SEGITZEN DU. Nahiz eta Bordeleko Auzitegi Administratiboak PLUa baliozkotu duen, eta segidako erabaki judizialek herria eta Aggloa faboratzen dituzten, Bouygues-en eraikitzeko baimenari buruzko auzitegiaren erabakiaren beha gira oraindik. Ez da ahantzi behar lurraldearen kudeaketa ez dela auzitegietan bakarrik jokatzen. Afera hau eremu politikoan konponduko da. Kontrakoak auzitegietara pasatzen diren bitartean, Kanboko Auzapezak ez du oraino argitu behar izan arazoa elkarrizketaren bidez konpontzeko ekimenik ez dela.
Eskertzen zaitizegu zuen laguntzagatik eta 2025 urte oso ona desiratzen dizuegu.

Pour nous suivre : http://www.kanbo-nahidugunherria.eu/fr/

### Éloge du dialogue, de la transparence et de la nuance

Le début d'année est toujours marqué par cette agréable période où l'on s'adresse des vœux en famille, entre amis, dans le cadre professionnel, et même à des inconnus. Nous ne dérogerons pas à cette agréable coutume, et **c'est avec plaisir et sincérité que nous vous souhaitons le meilleur pour vous-même, ainsi que tous ceux qui vous sont chers.**

Mais cette période de vœux est également propice à tirer quelques enseignements de l'année qui vient de s'achever.
Nous vivons en effet une période préoccupante, pour ne pas dire attristante, pour notre démocratie. Qu'il s'agisse de la France ; avec cette polarisation extrême de la vie politique caractérisée par l'exagération des invectives incessantes, une incapacité totale à dialoguer et à imaginer entre opinions différentes des solutions de compromis ; ou qu'il s'agisse du Pays Basque, et même de Cambo-les-Bains, nous ne pouvons que déplorer une nette dégradation de la sérénité des débats publics.
Nous sommes hélas bien loin de la capacité d'écoute et de l'esprit de concorde pour lesquels, chers concitoyens, vous nous avez choisis.

Ainsi, nous déplorons fortement que notre appel au dialogue et à la médiation ait longuement été méprisé après le énième épisode du dramatique Conseil Municipal du 10 avril dernier, illustrant un cran nouveau dans l'escalade destructrice du cycle refus de dialogue / action revendicative / répression. Notre appel a surtout servi de prétexte à bas prix, pour se débarrasser précipitamment d'un esprit considéré comme divergent et d'une voix un peu trop libre. Nous parlons bien entendu de l'éviction de l'un d'entre nous de la fonction d'animateur référent du **Pôle Errobi**, puis de l'utilisation éhontée de ce bulletin municipal pour clouer au pilori la même personne.

Mais la vie municipale se caractérise aussi par son opacité et l'absence de dialogue avec d'autres acteurs de la commune.
Le dernier exemple en date est particulièrement instructif : il s'agit du projet de terrain synthétique.
Manifestement, les choix techniques, financiers et de localisation de ce terrain ont été opérés sans quasiment aucune concertation avec les principaux publics concernés.
Au final, sous prétexte d'un bouclage financier incertain, le projet est ajourné.
Lors du dernier Conseil Municipal, après près de cinq mois d'absence de réunion des élus municipaux, l'association **Kanboko Izarra** nous a remis un dossier particulièrement étoffé qui met en relief les carences de l'action municipale.
Cette association s'est chargée, en lieu et place de la municipalité, de rencontrer tous les acteurs concernés par cet équipement sportif, comme le club de rugby et les écoles, afin de proposer des solutions alternatives :

- Nettement moins coûteuses,
- Pouvant s'imaginer dans un phasage financièrement plus digeste,
- Et avec en prime une étude juridique qui mérite d'être analysée et probablement mise en œuvre.

**À nos yeux, l'élection de citoyens comme les autres que nous sommes, ne doit pas se traduire par une forme d'enfermement dans une tour d'ivoire.** La gestion publique et municipale doivent en permanence continuer à prendre le pouls et à s'adapter aux évolutions du terrain et aux attentes de nos concitoyens.
C'est la raison pour laquelle, dans les prochaines semaines, nous envisageons d'entamer un long travail d'écoute active de tous les acteurs qui font la vie de notre belle cité :

- Les entreprises,
- Les commerçants,
- Les artisans,
- Les associations,
- Et tous les organismes (écoles, maisons de retraite) qui constituent la réalité de notre lien social à Cambo-les-Bains.

Cette écoute nous permettra, nous l'espérons, d'alimenter notre réflexion et nos projets pour l'avenir de Cambo-les-Bains.
Nous vous remercions par avance pour l'accueil que vous nous réserverez.

### Elkarrizketaren, gardentasunaren eta ñabarduraren goraipamena

Urte hasierak beti markatzen du garai atsegin hori, nun familian, lagunartean, esparru profesionalean, baita ezezagunen artean ere, urte berri on bat desiratzen dugun bakoitzari. Ez diogu ohitura atsegin horri uko egingo, **atseginez eta zintzotasunez desiratzen dizuegu hoberena, zuek bakoitzarentzat eta zuen hurbilekoentzat.**

Baina xede garai hau egokia da ere bukatu berri den urtearen irakaspen batzuk ateratzeko.
Garai kezkagarria bizi dugu, ez erraiteko penagarria, gure demokraziarentzat. Izan dadila Frantzian; etengabeko exajerazioa ezaugarri duen bizitza politikoaren polarizazio izugarri horrekin, iritzi ezberdinek elgarren artean ez direlarik gai agertzen konpromiso batzuen lantzeko; izan dadila ipar Euskadin, baita Kanbon ere ; eztabaida publikoen txartze bat bizi dugula aitortu behar da.
Oso urrun gaude entzuteko gaitasunetik eta adiskidetasun izpiritutik. Alta helburu horrekin gaituzute hautatu.

Hari hortarik, biziki deitoratzen dugu elkarrizketarako eta bitartekaritzarako gure deia luzaz gutxietsia izaitea.
Iragan apirilaren 10eko Herri Kontseilu dramatikoaren ondotik gure deialdiak ezin izan du elkarrizketa errefusa/ ekintza aldarrikatzaile/ errepresio zikloari gelditze bat ekarri. Helburu horren alderantziz, gure deiak balio izan du, batez ere, prezio apaleko aitzaki gisa, izpiritu dibergentea eta ahots askeegia, presaka bere postutik kanportazerko. Gutariko bat Errobi Lurraldearen animatzaile erreferentetik kanporatzeaz ari gara, jakina, eta gero herri aldizkari hunen erabiltzeaz persona horren zikintzeko.

Herriko Etxeko egin moldea, ardura, elgarrizketa eta gardentasun faltarekin parekatu daiteke.
Azken adibidea bereziki adierazgarria da: lur sintetikoaren proiektua.
Argi eta garbi, lursail horren aukera teknikoak, finantzarioak eta lokalizaziokoak egundainoko itunik gabe landuak izan dira proiektu horri lotuak diren publiko garrantzitsuenekin.
Azkenean, finantzen murrizte baten aitzakiarekin, proiektua atzeratu egin da.
Azken Herri Kontseiluan, Herri Kontseilariok ia bost hilabetez bildu gabe egon ondoan, Kanboko Izarra elkarteak txosten zehat bat banatu digu nun Herriaren ekintzaren gabeziak agerian azaltzen diren.
Elkarte hori arduratu da, Herriko Etxearen ordez, kirol ekipamendu horrekin zerikusia duten eragile guztiekin biltzeaz, hala nola errugbi taldearekin eta eskolekin, aterabide alternatiboak proposatzeko:

- Askoz merkeagoak,
- Finantza aldetik fase ezberdin batzuetan planifikatu daitezkenak,
- Eta, gainera, estudio juridiko batekin, aztertu eta praktikan jartzea merezi duena.

Gure ustez, gu bezalako hiritarrak hautatzeak ez du erran nahi dorre batean giltzapetua egon behar dugunik. Kudeaketa publikoak eta Herri kudeaketak etengabe jarraitu behar dute gizartearen pultsua hartzen eta gure herritarren itxaropenetara egokitzen.
Horregatik, datozen asteetan, gure hiri ederraren bizitza egiten duten eragile guzien entzute aktiboko lan luze bati ekitea pentsatzen ari gara:

- enpresak,
- merkatariak,
- artisauak,
- Elkarteak,
- Eta Kanboko gure lotura sozialaren errealitatea osatzen duten erakunde guztiak (eskolak, zahar etxeak).

Entzuketa horri esker, espero dugu Kanboko etorkizunerako gogoeta eta proiektuak elikatuko ditugula.
Aldez aurretik eskertzen dizugu emango diguzun harrera.

Jean François Lacosta
eta Peio Etxeleku (06 72 87 17 30)










# CHRISTIAN DEVÈZE

Maire de Cambo-les-Bains

*Kanboko Auzapeza*

## ET LE CONSEIL MUNICIPAL

*Eta herriko kontseiluak*

## VOUS PRÉSENTENT LEURS MEILLEURS VŒUX POUR 2025

*2025 rako agiantzarik*
*hoberenak eskaintzen dizkizute*







Cambo-les-Bains

Kanbo